

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

## Foru Aginduak

## Órdenes Forales

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA  
LURRALDE OREKAREN SAILADEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL  
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

6797

6797

**46/2007 FORU AGINDUA, irailaren 27koa, Alegria-Dulantziko BEPBaren bigarren aldaketaren espedientea (araudiaren 38., 44., 45. eta 50. artikuluei dagokie) behin betiko onartzen duena.**

**ORDEN FORAL 46/2007, de 27 de septiembre, de aprobación definitiva del expediente de segunda modificación del PERI de Alegria-Dulantzi, relativa a los artículos 38, 44, 45 y 50 de la normativa.**

## I.- AURREKARIAK

## I.- ANTECEDENTES

Lehena.- 2007ko otsailaren 12an Alegria-Dulantziko Udalak bere hirigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Aldaketa hori araudiaren 38., 44., 45. eta 50. artikuluei zegozkien. Era berean, espedientea 20 egun baliodunetz jendaurrean jartzea erabaki zuen udalak. Honela egin zen jakinarazpena: 2007ko otsaileko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (21. zenbakia) eta 2007ko otsailaren 28ko Diario de Noticias de Alava egunkarian argitaratuz eta udaletxeko iragarki taulan jarritz.

Primero.- Con fecha 12 de febrero de 2007, el Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi acordó aprobar inicialmente la Modificación puntual del Plan Especial de Rehabilitación Integrada de su casco histórico, relativa a los artículos 38, 44, 45 y 50 de la normativa, así como someter el expediente a información pública por el plazo de 20 días, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 21 de febrero de 2007, en el periódico Diario de Noticias de Alava, de 28 de febrero de 2007, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, 2007ko martxoaren 29an egindako bilkuran, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundira igortzea erabaki zuen, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espedienteari 2007ko maiatzaren 25ean eman zitzaion sarrera foru aldundian.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, por lo que el Ayuntamiento, en sesión del día 29 de marzo de 2007, acordó aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 25 de mayo de 2007.

Hirugarrena.- Eskatu beharreko txostenak ondorengo arau hauek xedatutakoaren ildotik eskatu ziren: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 24. artikulua, Eraikitako eta Urbanizatutako Ondarea Zaharberritzeko Jarduketa Babestuei buruzko 317/02 Dekretuaren 12.4 artikulua eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 Legearen 28. artikulua. Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak txostena bidali zuen 2007ko uztailaren 19an.

Tercero.- En virtud de lo establecido en los artículos 24 de la Ley de Ordenación del Territorio del País Vasco, 12.4 del Decreto 317/02 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado y 28 de la Ley 7/90 de Patrimonio Cultural Vasco, fueron solicitados los pertinentes informes. El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco emitió su informe el día 19 de julio de 2007.

## II.- OINARRIAK

## II.- FUNDAMENTOS

Lehenengoa.- Espediente honek Alegria-Dulantziko BEPBa aldatzea du helburu, hain zuzen, honakoei dagokienez: errotuluak, plakak eta zenbait material (altzairu herdoilgaitzezkoak eta aluminio anodizatuzkoak edo berezko kolorekoak) arautzeari, eraikinetako fatxadetan kolore jakin batzuk erabiltzeari eta lonjetan erabili beharreko itxitura motei.

Primero.- El presente expediente tiene por objeto la modificación del PERI de Alegria-Dulantzi en relación a la regulación de rótulos y placas, de ciertos materiales como el acero inoxidable y el aluminio anodizado o en su color, sobre la utilización de ciertos colores para las fachadas de los edificios y sobre el tipo de cierres de seguridad en lonjas.

Alderdi horiek zehazki arautzen dira, eta egungo araudian dauden zenbait kontraesani irtenbidea ematen zaie:

Se regulan estos aspectos de una manera exhaustiva, solucionando algunas contradicciones existentes en la normativa actual:

a) Altzairu herdoilgaitza eta aluminio anodizatu edo berezko koloreko aluminioa erabiltzea eraikuntzako elementu jakin batzuetan.

a) Sobre la utilización del acero inoxidable y el aluminio anodizado o en su color en determinados elementos constructivos.

Oro har, BEPBak ez du uzten aipatutako materialak erabiltzea kanpoko osaketarako inolako elementutan (38. artikulua), eraikinaren elementu gainjarrietan (44. eta 45. artikulua) eta hiri altzarrien elementuetan (50. artikulua).

Como norma general, el PERI no permite la utilización de estos materiales en ningún elemento de composición exterior (artículo 38), elemento superpuesto a la edificación (artículos 44 y 45) y en elementos de mobiliario urbano (artículo 50).

Baina material horiek erabiltzea baimendu nahi da honako egoeretan:

Se pretende permitir estos materiales en los casos siguientes:

. Eraikinaren beheko solairuetako ateetan, leihoetan eta erakusleihoetan eta BEPBak beheko solairuetan baimentzen dituen erabileretan, etxebizitzarako erabileretan izan ezik. 38. artikuluan zehaztutako guztia.

. Puertas, ventanas y escaparates situados en cualquier caso en planta baja de la edificación, y para los usos autorizados en el PERI en las plantas bajas excluido el uso residencial destinado a vivienda. Todo ello detallado en el artículo 38.

. 38. eta 44. artikuluetan zehaztutako errotuluak eta iragartzeko plakak.

. Rótulos y placas anunciadoras detallados en los artículos 38 y 44.

. Lonjetan 45. artikuluan zehaztutako segurtasunerako itxiturak.

. Cierres de seguridad en lonjas detallados en el artículo 45.

. Hiri altzarietarako 50. artikuluan zehaztutako elementuak.

. Elementos de mobiliario urbano detallados en el artículo 50.

b) Plakak eta errotuluak erabiltzeari dagokionez, 38. artikuluan eta 44. artikuluan artean dagoen kontraesana konpontzen da; izan ere, 38. artikuluan banderola motako iragarkiak egiteko aukera

b) Sobre la utilización de placas y rótulos, se elimina la contradicción actual entre los artículos 38 y 44, puesto que en el 38 existe la posibilidad de realizar anuncios tipo banderola sólo en caso de

botiketan eta larrialdi zerbitzuetan baino uzten ez den bitartean, 44. artikuluan egoera guztietarako baimentzen da.

Banderola motako errotuluak egun 38. artikuluan adierazten diren egoerentarako baino ez da baimendu nahi.

Era berean, iragarkietarako plakak arautzen dira beheko solairuetan eta atarietako ate-zangoetan (30x30x2 neurriak), eta egun 44. artikulua adierazten duena ezabatu egiten da.

c) Fatxadetako koloreak.

Baimendutako koloreei (krema, gorri-horia eta lur kolorea) burdeos kolorea erantsi nahi zaie, eta harri naturaletan, 38.3.1 artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

d) Lonjetako segurtasunerako itxiturak.

45. artikuluan lonjetako segurtasunerako itxiturak kalatu edo zulatu motakoak izateko baldintza sartuko da, eta ez da itsu motakoa baimenduko.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

#### XEDATU DUT:

Primero.- Behin betiko onartzea Alegria-Dulantziko BEPBaren bigarren aldaketaren (araudiaren 38., 44., 45. eta 50. artikulua) espediente.

Bigarren.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako Salaren aurrean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailaren 27a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

#### ALEGRIA-DULANTZIKO BEPB BIGARREN ALDAKETA PUNTUALA ARAUDIAREN 38., 44., 45. ETA 50. ARTIKULUEN IDAZKETA BERRIA

38. artikulua.- Kanpoko osaketarako baldintzak.

1.- Fatxada nagusia

1.1.- Baoak

Simetrikoki jarritako ardatzen arabera kokatuko dira. Ardatz bat edo bi uzten direnean baimena ematen da solairuetako batek erdiko ardatz bakarra izatea eta beste solairuek bi ardatz izatea.

Beheko solairuan ardatz bakar bat baimentzen bada, bi bao jarri ahal izango dira atariak sarbide independentea izan dezan.

1.2.- Baoen zabalera.

- Bertikalak izango dira, 2tik 3rako proportzioarekin, eta gehienez ere, 1 m zabal izango dira, beheko solairuko garaje sarbidean (karratuak izan daitezke eta, gehienez ere, 2,50 m zabal izango dira) eta estalkiarteko solairuan (solairu ereduaren zabalera bera izango du eta altuera aldagarria izango da) izan ezik.

- Beheko solairuko baoek zabalera desberdina izan dezakete, baina simetrikoki jarrita egon behar dute.

- Salbuespen gisa, simetriarik eza onartzen da bi ardatz daudenean. Baoen zabalera tarte trinkoen gutxienezko zabalera zehaztuko du.

1.3.- Tarte trinkoen zabalera.

- Goiko solairuetan, baoen arteko tarte trinkoen artean eta horien eta fatxaden mugen artean zabalera bera egongo da oro har. Ez da % 20tik gorako alderik onartuko.

Solairu baten tarte trinkoen luzeren batuketaren eta baoen luzeren batuketaren artean 1,5 edo gehiagoko aldea izango da.

- Beheko solairuan, tarte trinkoek gutxienez 0,60 metroko zabalera izango dute.

farmacias y servicios de urgencia, mientras que en el 44 se autorizan en todos los casos.

Se pretende autorizar los rótulos en banderola tan solo en los casos que actualmente señala el artículo 38.

Se regulan asimismo las placas anunciadoras en plantas bajas y en las jambas de los portales con una dimensión de 30x30x2, eliminando lo señalado en el artículo 44 hoy día.

c) Sobre los colores en la fachada.

Se pretende añadir el color "burdeos" a las ya permitidas, crema, ocre, y tierras en el caso de piedra natural, lo previsto en el artículo 38.3.1.

d) Sobre los cierres de seguridad de lonjas.

Se incluirá dentro del artículo 45 el condicionante de que los cierres de seguridad de lonjas serán del tipo calado o perforado, no permitiéndose el tipo ciego.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

#### DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de segunda modificación del PERI de Alegria-Dulantzi relativa a los artículos 38, 44, 45 y 50 de la normativa

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 27 de septiembre de 2007.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

#### PERI ALEGRIA-DULANTZI. SEGUNDA MODIFICACIÓN PUNTUAL NUEVA REDACCIÓN DE LOS ARTÍCULOS 38, 44, 45 Y 50 DE LA NORMATIVA

Artículo 38.- Condiciones de Composición exterior.

1.- Fachada Principal.

1.1.- Huecos.

Se situarán según ejes dispuestos simétricamente. En el caso de que se permitan uno o dos ejes se autoriza a que una de las plantas tenga un solo eje central y las otras dos ejes.

En el caso de que se permita un solo eje en planta baja se podrá disponer de dos huecos para poder dar acceso independiente al portal.

1.2.- Anchura de los huecos.

- Serán verticales de proporción 2 a 3 con una anchura máxima de 1,00 m.; excepto en planta baja para acceso a garaje, que podrán ser de proporción cuadrada con anchura máxima de 2,50 m. y en planta entrecubierta que serán de anchura idéntica a las de planta tipo y altura variable.

- En planta baja, los huecos podrán ser de anchuras desiguales debiendo estar dispuestos simétricamente.

- Excepcionalmente se autoriza la asimetría en el caso de la existencia de dos ejes. La anchura de los huecos quedará, determinada por la anchura mínima de los macizos.

1.3.- Anchura de macizos.

- En plantas superiores, la anchura de los tramos macizos entre huecos, y entre éstos y los límites de las fachadas serán iguales con carácter general, no admitiéndose diferencias mayores del 20 %.

La relación entre la suma de las longitudes de los macizos de una planta y la suma de las longitudes de sus huecos será superior o igual a 1,5.

- En planta baja, la anchura mínima de los macizos será de 0,60 m.

## 2.- Estalkiak

Estalkia bi isurkikoa izango da eta teilatu hegala fatxada nagusira eta atzeko fatxadara izango ditu. Alboko fatxadetan, berriz, pinoia osatuko du. Salbuespenak izango dira izkina egiten duten eraikinak, horiei agiri grafikoetan adierazten den bezala emango baitaite irtenbidea.

Estalkiaren planoen malda handieneko lerroak normalak izango dira, gutxi gorabehera, erlaitzaren lerroetara edo aurreko eta atzeko teilatu hegaletara; % 27 eta % 40 arteko malda izango dute, bi isurialdeetan berdinak izango dira

## 3.- Eraikuntza elementuak.

## 3.1.- Zokaloak.

## a) Diseinua.

Nahitaezkoa izango da dauden harri hormak erabiltzea beheko solairuaren mailaraino, baita harrizko fatxadarik ez duen eraikinen beheko solairuan harrizko zokaloa jartze ere.

## b) Materialak

Kareharria edo harearri trinkoa.

## c) Testura.

Egun dauden harrizko eraikuntzen bezalakoa. Debekaturik daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdimateak.

## 3.2.- Tarte trinkoak

## a) Diseinua.

Azalean fatxada planoekin bat etorriko dira.

## b) Materialak

Harri naturala, zarpiatuak eta emokadurak. Debekaturik dago beste edozein material. Geruza bakarreko morteroa erabiliz gero, agregakinik gabe karrakatuko da, eta ohiko zarpiatuaren eta junturarik gabeko antzeko tratamendua izango du.

## c) Kolorea.

Krema, gorri-horia, lur kolorea eta burdeos. Harri naturaletan, aurreko paragrafoan adierazitakoa.

## d) Testura.

Zimurtasun mailak ezin du 0,002 m gainditu (maila ertaina-fina). Debekatuta daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdi-distiragabeak.

## 3.3.- Inpostak.

## a) Diseinua.

0,15 m eta 0,30 m arteko altuera izango dute, eta gehienez ere 0,08 m aterako dira eta gutxienez 0,05 m.

## b) Materialak

Harri naturala.

## c) Testura.

Egun dauden harrizko eraikuntzek dutenaren antzekoa. Debekatuta daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdi-distiragabeak.

## 3.4.- Azpadurak.

## a) Diseinua.

0,15 m eta 0,25 m bitarteko zabalera izango dute, eta gehienez 0,03 metroko irtengunea.

## b) Materialak

Harri naturala.

## c) Testura.

Egun dauden harrizko eraikuntzek dutenaren antzekoa. Debekatuta daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdi-distiragabeak.

## 3.5.- Ertzak.

## a) Diseinua.

0,40 m eta 0,25 m bitarteko zabalera izango dute, eta, gehienez, 0,03 metroko irtengunea.

## b) Materialak

Harri naturala.

## c) Testura.

Egun dauden harrizko eraikuntzek dutenaren antzekoa. Debekatuta daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdi-distiragabeak.

## 3.6.- Erlaitzak.

## a) Diseinua.

0,25 m eta 0,50 m bitarteko hegada izango du eta beheko aldearen eta estalkiaren isurialdeetako abiaburuaren artean gutxienez 0,25 metroko lodiera izango da. Halaber, molduratu egongo dira.

## b) Materialak

Harri naturala.

## 2.- Cubiertas.

La cubierta será a dos aguas con alero en sus fachadas principal y posterior, formando piñón en las fachadas laterales. Salvo los edificios de esquina que se resolverán según la documentación gráfica.

Las líneas de máxima pendiente de los planos de cubierta serán aproximadamente normales a las líneas de cornisa o alero anterior y posterior y tendrán una pendiente entre 27% y 40%, idéntica en los dos faldones.

## 3.- Elementos Constructivos.

## 3.1.- Zócalos.

## a) Diseño.

Será obligatoria la reutilización de la mampostería existente hasta el nivel de planta baja, disposición de un zócalo de piedra en la planta baja de los edificios cuyas fachadas no sean de piedra.

## b) Materiales.

Piedra caliza o arenisca compacta.

## c) Textura.

Similar al de las construcciones de piedra existentes. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semimates.

## 3.2.- Macizos.

## a) Diseño.

Coincidirán superficialmente con los planos de fachada.

## b) Materiales.

Piedra natural, raseos, enfoscados y revocos. Quedando prohibido cualquier otro material. En caso de utilización de mortero monocapa será raspado sin árido, de tratamiento similar a un raseo tradicional y sin juntas.

## c) Color.

Crema, ocre, tierras Burdeos y en el caso de piedra natural lo previsto en el apartado anterior.

## d) Textura.

Se permite un grado de rugosidad que no supere los 0,002 m. correspondiente a un grado medio - fino. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semi - mates.

## 3.3.- Inpostas.

## a) Diseño.

Tendrán una altura comprendida entre 0,15 y 0,30 m., con un saliente máximo de 0,08 m. y mínimo de 0,05 m.

## b) Materiales.

Piedra natural.

## c) Textura.

Similar al de las construcciones de piedra existentes. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semimates.

## 3.4.- Recercados.

## a) Diseño.

Tendrán una anchura comprendida entre 0,15 m. y 0,25 m., y un saliente máximo de 0,03 m.

## b) Materiales.

Piedra natural.

## c) Textura.

Similar al de las construcciones de piedra existentes. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semimates.

## 3.5.- Esquinales.

## a) Diseño.

Tendrán una anchura máxima de 0,40 m. y una mínima de 0,25 m., con un saliente máximo de 0,03 m.

## b) Materiales.

Piedra natural.

## c) Textura.

Similar al de las construcciones de piedra existentes. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semimates.

## 3.6.- Cornisas.

## a) Diseño.

Tendrá un vuelo comprendido entre 0,25 m. y 0,50 m. y un grueso mínimo entre la parte inferior y el arranque del faldón de la cubierta de 0,25 m., debiendo ir moldurada.

## b) Materiales.

Piedra natural.

c) Testura.

Egun dauden harrizko eraikuntzek dutenaren antzekoa. Debebatuta daude akabera leunduak, distiratsuak eta erdi-distiragabeak.

3.7.- Teilatu hegala

a) Diseinua.

0,40 m eta 1,00 m bitarteko hegada izango du eta elementu sostengatzailearen beheko aldearen eta estalkiaren isurialdeetako abiabururen artean gutxienez 15 zentimetroko lodiera izango da.

Elementu sostengatzaileak aurrealdetik, barrutik eta albotik ikusi edo estali ahal izango dira, zurezko oholtzaren bidez. Ikusten badira, ardatzen artean ezin izango dute 0,60 m baino gehiagoko tarterik izan.

b) Materialak

Bistako elementuetarako, zura, eta agerian ez dauden elementu sostengatzaileetarako, altzairua. Bistara egindako hormigoia.

c) Kolorea.

Egur kolorea eta kolore ilunak

d) Testura.

Materialak berez dutena.

3.8.- Leihoak..

a) Diseinua.

Forma angeluzuzena izango dute, eta zabalera baino altuera handiagoa. Lauki forma eraikinaren azken solairuan baino ezin izango dute izan.

Karela 0,90 metro altu izan beharko da gutxienez, eta fabrikakoa izan ahalgo da. Bestela, fatxada planotik ateratzen ez den altzairuzko sare bat jarri ahal izango da

b) Materialak

Arotzeria: zura, altzairua, hodi formako profiletan, eta aluminio lakatua. Ezin izango da aluminio anodizaturik eta aluminioa kolore naturalean erabili.

c) Kolorea.

Zura eta kolore ilunak.

d) Testura.

Materialak berez duena.

3.9.- Balkoiak

a) Diseinua.

Harlauzak gehenez ere 0,40 m-ko hegada izango du, baoaren zabalera bera, eta gehenez ere 0,40 m-ko luzera alde banatan. Lodierak ez ditu 0,15 m gainditu behar.

Karela 0,90 metro altu izan beharko da gutxienez, eta altzairuzko sare batez egongo da eginda.

b) Materialak

Harlauza harrizkoa, molduratutako hormigoi armatuzkoa edo altzairuzko sare egindako armazoi metaliko gaineko zeramika piezazkoa izango da. Harotzeria zurezkoa izango da edo altzairuzkoa hodi formako profilekin.

c) Kolorea.

Teilatu hegaletan baimendutakoak.

d) Testura.

Materialak berez duena.

3.10.- Estaldurak.

a) Diseinua.

Estalkietako planoak jarraituz egingo da.

b) Materialak

Zeramikazko teila arabiarrak.

c) Kolorea.

Materialak berez dituenak.

d) Testura.

Materialak berez duena. Debebatuta daude material beiratzatuak.

3.11.- Erretenak eta zorrotzenak.

a) Diseinua.

Erretena estalkien isurkien kanpoko muturretan kokatuko da, eta erlaitzean edo teilatu hegaletik zintzilik jarriko dira.

Zorrotzenak fatxadaren alboetan kokatuko dira eta, bat baino gehiago baldin badira, simetrikoki jarriko dira. Horiek burdinurtuz egindako babesa izango dute 1,70 metroko altueraraino.

b) Materialak

Kobrezko, altzairuzko edo zinkezko xafla eta aurrez pintaturikoa.

c) Textura.

Similar al de las construcciones de piedra existentes. Se prohíben los acabados pulidos, brillantes y semimates.

3.7.- Aleros.

a) Diseño.

Tendrán un vuelo comprendido entre 0,40 m. y 1,00 m. y un grueso máximo entre la parte inferior del elemento sustentante y el arranque del faldón de la cubierta de 15 cm.

Sus elementos sustentantes podrán ser vistos o cubiertos frontal, inferior y lateralmente, mediante un entarimado de madera, no pudiendo en el caso de ser vistos, tener una separación entre ejes superior a 0,60 m.

b) Materiales.

Madera para los elementos vistos y acero para los elementos sustentantes ocultos. Hormigón ejecutado a "cara vista".

c) Color.

Madera y colores oscuros.

d) Textura.

La propia de los materiales.

3.8.- Ventanas.

a) Diseño.

Tendrán forma rectangular, con mayor altura que anchura, pudiendo únicamente ser cuadrados en la última planta.

El antepecho tendría una altura mínima de 0,90 m. pudiendo ser de fábrica o en otro caso disponerse de una reja de acero que no sobresalga del plano fachada.

b) Materiales.

Carpintería de madera, acero en perfiles tubulares y aluminio lacado. Se prohíbe el aluminio anodizado y en color natural.

c) Color.

Madera y colores oscuros.

d) Textura.

La propia del material.

3.9.- Balcones.

a) Diseño.

La losa tendrá un vuelo máximo de 0,40 m. y una anchura igual a la del hueco más una longitud de 0,40 m. máxima a cada lado. El grosor no será superior a 0,15 m.

El antepecho tendrá una altura mínima de 0,90 m. y estará compuesto por una reja de acero.

b) Materiales.

La losa será de piedra, hormigón armado moldurado, o de piezas cerámicas sobre armazón de reja de acero. La carpintería será de madera, acero en perfiles tubulares.

c) Color.

Los permitidos en los aleros.

d) Textura.

La propia del material.

3.10.- Cubrición.

a) Diseño.

Se realizará siguiendo los planos de cubierta.

b) Materiales.

Teja curva cerámica o árabe.

c) Color.

Los propios del material.

d) Textura.

La propia del material. Se prohíben los materiales vidriados.

3.11.- Canales y Bajantes.

a) Diseño.

El canalón se situará en los extremos exteriores de los faldones de las cubiertas debiendo ir apoyado en la cornisa o colgado en el alero.

Las bajantes se situarán en los laterales de la fachada y dispuestas simétricamente si fueran más de una. Deberán llevar una protección de hierro fundido hasta una altura de 1,70 m.

b) Materiales.

Chapa de cobre, acero o zinc y Prepintado.

c) Kolorea.

Aurrez pintaturiko altzairuzko xafla.

d) Testura.

Materialak berez duena.

3.12.- Argi-zuloak.

a) Diseinua.

Estalkiaren planoetik paraleloki ezarriko dira, eta gehienez ere 0,10 m aterako dira. Ez dute estalkiaren azaleraren % 8 gaindituko.

b) Materialak

Altzairua (hodi formako profiletan), aluminio lakatua eta zur babestua.

c) Kolorea.

Teilatu hegaletarako baimenduta daudenak.

d) Testura.

Materialak berez duena.

3.13.- Tximiniak

a) Diseinua.

Abiaturua fabrikakoa izango da eta oinarri errektangularra izango du, eta gutxienez 0,30 metroko altuera izango du estalkiaren isurkiaren gainetik. Gutxienezko altuera 0,45 metro izango da gailurraren gainetik edo 3 metro baino gutxiagora dagoen edozein eraikuntza elementutatik. Gehienezko altuera 0,70 metro izango da gailurraren gainetik.

b) Materialak

Fatxadaren tarte trinkoetarako adierazi direnak eta, ageriko hodieta, zeramikazkoak edo altzairuzko xaflazkoak.

c) Kolorea.

Abiaguneetarako, fatxadaren tarte trinkoetarako adierazi direnak. Zeramikazko hodieta, kolore naturala eta metalezko osagaiena beltzez pintatuta.

d) Testura.

Materialek berez dutena.

3.14.- Ateak eta erakuslehoak.

a) Diseinua.

Proporzio bertikala izango dute, garajeetan izan ezik, horietan gehienez 2.50 m zabal izango baitira.

Erakuslehoaren eta beheko solairura sartzeko atearen planoak gutxienez 25 zentimetro atzeratuko dira fatxadaren lerrodaturaketik eta 40 zentimetro gehienez.

b) Materialak

Zur barnizatua edo kolore ilunetan pintatua, etxebizitzetarako erabileretarako. Beheko solairuko bao eta erakuslehoen kasuetan BEPBn baimendutako gainerako erabileretarako (etxebizitzetarako erabilerak izan ezik), honakoak onartuko dira: zur barnizatua edo kolore ilunetan pintatua, altzairu herdogaitza eta kolore ilunetan pintaturiko altzairua, eta aluminio anodizatua, aluminioa kolore naturalean eta aluminioa kolore ilunetan.

3.15.- Olanak (iragarkietarako), markesinak eta iragarkietarako hesiak.

Beheko solairuko baoen barruan txertatutako iragarkiak baimentzen dira, baldin eta fatxadaren planotik ateratzen ez badira, nahi diren osaketak eta materialak erabili ahal izango direla.

Ez dago baimendurik iragarkirik, errotulurik edo erreklamorik onartzen beheko solairutik goragoko solairuetan, izaera publikoko komunitate ekipamenduak ez badira eta dagokion errotulua fatxadaren irtenbide orokorretan txertaturik ez badago, edo beheko solairuko baoa, bere ezaugarriengatik, errotulua jartzea uzten ez badu. Bi egoera horietan fatxadaren parametroaren gainean jartzea baimenduko da. Gehienez 30 zentimetroko altuera izango dute eta 10 zentimetroko hegada. Honelako letrak izango dituzte: metalezkoak (forja, brontzea, urre koloreko metala, altzairu herdogaitza, aluminio anodizatua edo bere kolorekoa eta kolore ilunetan lakatutako aluminioa) edo zurezkoak. Debekatuta daude, horrelakoetan, plastikatuak.

Era berean, baimenduta dago jarduera iraunkorren iragarki plakak jardueraren atariaren alboko ostikoen frontean jartzea. Honako neurriak izango dituzte: 30x30 eta 2 zentimetroko gehienezko hegada, aurreko paragrafoan adierazitako materialetan.

c) Color.

Chapa de acero prepintado.

d) Textura.

La propia del material.

3.12.- Lucernarios.

a) Diseño.

Se situarán en planos paralelos a los de la cubierta con un saliente máximo de 0,10 m., y una superficie máxima del 8% de la cubierta.

b) Materiales.

Perfiles tubulares de acero, aluminio lacado y madera protegida.

c) Color.

Los permitidos para aleros.

d) Textura.

La propia del material.

3.13.- Chimeneas.

a) Diseño.

El arranque será de fábrica de planta rectangular y de 0,30 m. de altura mínima sobre el faldón de la cubierta. La altura mínima será de 0,45 m. por encima de la cumbre o de cualquier elemento constructivo situado a una distancia inferior a 3 m. La altura máxima será de 0,70 m. sobre la cumbre.

b) Materiales.

Los mismos que para los macizos de fachada y cerámicos o chapa de acero en los conductos vistos.

c) Color.

Para los arranques los mismos que para los macizos de fachada.

El natural para los conductos cerámicos y el de los elementos metálicos pintado en color negro.

d) Textura.

La propia de los materiales.

3.14.- Puertas y escaparates.

a) Diseño.

Será de proporción vertical, salvo la de garajes que podrá tener una anchura máxima de 2,50 m.

El plano del escaparate y puerta de acceso a planta baja se retranquearán como mínimo 25 cm. con respecto a la alineación de la fachada y 40 cm. como máximo.

b) Materiales.

Madera barnizada o pintada en tonos oscuros para los usos residenciales de vivienda. En el caso de huecos y escaparates en planta baja para el resto de usos autorizados en el PERI, excluido el residencial de vivienda se admite la Madera barnizada o pintada en tonos oscuros, el acero inoxidable y acero pintado en tonos oscuros y el aluminio anodizado o en su color y el aluminio lacado en tonos oscuros.

3.15.- Toldos anuncios, marquesinas y vallas publicitarias.

Se autorizan los anuncios integrados dentro de los huecos de la planta baja, siempre que no sobresalgan del plano de fachada, con libertad de composición y materiales.

No se autoriza ningún tipo de anuncio, rótulo o reclamo en plantas superiores a la baja, salvo que se trate de equipamientos comunitarios de carácter público y el correspondiente rótulo se halle integrado en las soluciones generales de la fachada, o que el hueco de planta baja por sus características no permita la colocación del rótulo. En ambos casos se admitirá su instalación sobre el paramento de fachada con un tamaño máximo de 30 cm. de altura y 10 cm. de vuelo conformados por letras sueltas metálicas (forja, bronce, metal dorado el acero inoxidable y el aluminio anodizado o en su color y el aluminio lacado en tonos oscuros) o madera prohibiéndose en tales caso los plastificados.

Se admiten asimismo la colocación de placas anunciadoras de actividades de carácter permanente sobre el frente de los machones laterales del portal correspondiente al ejercicio de la actividad, con unas dimensiones máximas de 30 x 30 y vuelo máximo de 2 cm. en los mismos materiales indicados en el párrafo precedente.

Udalak iragarkiak jartzeko baimena ukatu ahal izango du, erai-kinaren inguruarekiko egokiak ez direla uste duenean.

Debekatuta dago markesinak jartzea.

Era berean, debekatuta daude banderola motako errotuluak, botiketetan eta larrialdi zerbitzuetan salbu. Horrelakoetan, plastifikatuak eta argidunak, baina keinukaririk gabekoak, izan daitezke; 70 cm-ko hegada izango dute gehienez beheko solairuko fatxadatik, 60 cm-ko altuera gehienez eta 15 cm-ko ertza gehienez, eta ertz horren beheko aldean espaloitik 2,20 m-ko altueran egongo da gutxienez.

Egun dauden elementuak ordenantza hauetan ezarritako aginduetara egokitzan ez badira, ez dira osorik ez zati batean zaharberrituko, aipatutako xedapenetara egokitzeko dagokion eraldaketa izaten ez badute.

Debekatuta geratzen da edozein motatako olana eta iragarki hesiak jartzea.

44. artikulua.- Errotuluak eta plakak.

1.- Errotuluak beheko solairuan.

Azaleko elementuetan, gutxi gorabehera fatxadaren gainazalarekiko paralelo direnetan, eta puntu bakar batean ere fatxadaren lerroka-duratik 0,10 m baino gehiago ateratzen ez direnetan baino ez dira onartzen.

Iragarkiaren zabalera ez du kokatzen den baoaren zabalera gaindituko, eta altueran ez du 0,50 m gaindituko.

2.- Errotuluak solairuetan.

38. artikuluko 3.15 paragrafoan adierazten diren egoeretan baino ez dira baimentzen.

3.- Plakak.

Honelakoetan baimenduko dira:

- Atarrietako ate zangoan kokatzea, 1,60 eta 2,00 metroko altueraren artean.

- Honako neurriak izango dituzte gehienez: 0,30 m zabal, 0,30 m altu eta 0,02 m lodia.

- Baimendutako materialak, besteak beste, letoia eta brontzea izango dira, beren kolore naturalean, eta letra grabatuak edo erliebedunak izango dituzte. Era berean baimenduta daude honakoak: altzairu herdoilgaitza eta kolore ilunetan pintatutako altzairua, aluminio anodizatua edo bere kolorean, eta kolore ilunetan lakatutako aluminioa eta materialak duen berezko testurarekin.

45. artikulua.- Lonjetako segurtasunerako itxiturak.

Ezin izango dute ageriko elementurik eduki, hala nola, fatxada lerrotik ateratzen diren kutzak edo gidaririk.

Kalatu edo zulatu motakoak izango dira, eta ez diraitsu motako itxiturak baimenduko.

Baimendutako materialak 38. artikuluko 3.15 paragrafoan beheko atearako eta erakusleioetarako baimentzen direnak izango dira. Hona: zur barnizatua edo kolore ilunetan pintatua, altzairu herdoilgaitza eta kolore ilunetan pintaturikoa, eta aluminio anodizatua, aluminioa kolore naturalean eta aluminioa kolore ilunetan.

50. artikulua.- Hiri altzarien baldintzak.

1.- Elementuak.

Honako elementuak sartzen dira paragrafo honetan:

- Iturriak, eserlekuak eta itxiturak.

- Kioskoak, telefono kabinak eta paperontziak.

- Kaleen, monumentuen eta ibilbideen seinaleak.

- Trafiko eta semaforo seinaleak eta kaleak itxita daudela adierazteko seinaleak.

- Oinezkoentzako babesak, defentsak, barandak eta eskudelak.

2.- Kalitateak.

Espazio desberdinetako tratamenduen araberakoak izango dira.

Oro har, honako kalitateak onartuko dira: harri naturala edo pintatua, burdina pintatua, aluminio lakatua edo anodizatua edo bere kolorekoa, altzairu herdoilgaitza eta pintatua, brontzea eta letoia.

3.- Koloreak.

Trafiko seinaleek bezala kolore arautuak dituzten elementuetan izan ezik, kolore naturalak erabiliko dira harrietan eta tradiziozkoak zur pintatuan, burdina pintatuan eta aluminio lakatuan.

4.- Testura

Materialak berez duena.

El Ayuntamiento podrá denegar la autorización para colocar anuncios, cuando estime que los mismos no resultan adecuados al entorno ambiental del edificio.

Se prohíbe la colocación de marquesinas.

Se prohíben así mismo, los rótulos en banderola, salvo para farmacias y servicios de urgencia, pudiendo en tal caso ser plastificados y luminosos sin intermitencia, con un vuelo máximo de 70 cm. desde fachada de planta baja, altura máxima de 60 cm. y canto máximo de 15, con borde inferior situado a 2,20 m. de altura mínima sobre la acera.

Los elementos existentes actualmente y que no se ajusten a las prescripciones establecidas en estas ordenanzas, no podrán ser restaurados en todo ni en parte, a menos que sufran la correspondiente transformación al objeto de sujetarse a dichas disposiciones.

Quedan prohibidos los toldos y la instalación de vallas publicitarias en todas sus formas y variantes.

Artículo 44.- Rótulos y Placas.

1.- Rótulos en Planta Baja.

Sólo se admiten en elementos superficiales, aproximadamente paralelos a la superficie de fachada, planos y que no sobresalgan en ningún punto más de 0,10 m. de la alineación de la fachada.

La anchura del anuncio no sobrepasará la del hueco en que se sitúe y su altura no excederá de 0,50 m.

2.- Rótulos en pisos.

Sólo se autorizan en los casos que se reflejan en el artículo 38 apartado 3.15

3.- Placas.

Se autorizan siempre que:

- Se sitúen en las jambas de la puerta del portal, a una altura comprendida entre 1,60 y 2,00 m.

- Sus dimensiones máximas serán: ancho 0,30 m., alto 0,30 m. y grueso 0,02 m.

- Los materiales permitidos serán, entre otros, el latón y el bronce, en su color natural con letras grabadas o en relieve, el acero inoxidable y acero pintado en tonos oscuros y el aluminio anodizado o en su color y el aluminio lacado en tonos oscuros y con la textura propia del material.

Artículo 45.- Cierres de Seguridad en Lonjas.

No podrán tener elementos a la vista, tales como cajas o guías que sobresalgan de la línea de fachada.

Deberán ser de tipo calado o perforado quedando prohibidos los cierres de tipo ciego.

Respecto a los materiales se permiten los mismos que para las puertas y escaparates de plantas bajas que se detallan en el artículo 38 apartado 3.15 y serán de Madera barnizada o pintada en tonos oscuros, acero inoxidable o pintado en tonos oscuros y el aluminio anodizado o en su color y el aluminio lacado en tonos oscuros.

Artículo 50.- Condiciones del Mobiliario Urbano.

1.- Elementos.

Se incluyen en este apartado los siguientes elementos:

- Fuentes, bancos y cierres.

- Kioskos, cabinas telefónicas y papeleras.

- Señalizaciones de calles, monumentos e itinerarios.

- Señalizaciones de tráfico, semáforos y cierres de calles.

- Protecciones de peatones, defensas, barandillas y pasamanos.

2.- Calidades.

Dependerá de los tratamientos correspondientes en los diferentes espacios. En general se admitirán las de piedra natural, madera natural o pintada, hierro pintado, aluminio lacado y anodizado o en su color, acero inoxidable y pintado, bronce y latón.

3.- Colores.

A excepción hecha de los elementos de colores normalizados tales como las señales de tráfico, los colores serán los naturales en las piedras y los tradicionales en madera pintada, en hierro pintado y aluminio lacado.

4.- Textura.

La propia del Material.